


ESALDI INTERESGARRIAK



- ❖ Orratzak lako euri mingotsa ari zuen itsasoan. (Ulenspiegelen elezaharra, Itzultzailea: Koldo Izagirre)
- ❖ Errealitateak, hala bizitzarenak nola heriotzarenak, badu zerbait lasaigarria. (Eszterren ondarea. Itzultzailea: Ander Irizar)
- ❖ Arrosa zuriaz den bezainbatean, zer esan handia legoke bai bataren bai bestearen alde! (Ilargi-harria. Itzultzailea: Antton Olano)
- ❖ Biderkatu [zenbaki bat] zenbaki beraz. (On Casmurro. Itzultzailea: Josu Zabaleta)
- ❖ Ni nembilen kaleek beren kabuz ihes egiten zidatela iruditzen zitzaidan. (On Casmurro. Itzultzailea: Josu Zabaleta)
- ❖ Hura eskuetan hartu, tolesten hasi, eta zer ikusiko, eta Rachel andereñoaren ateko pintura-arrastoa! (Ilargi-harria. Idem)
- ❖ Hala, bada, goiz hartan zure gelara igo nitzen nire lana egitera. (Ilargi-harria. Idem)
- ❖ Hainbestearino ikaratu ninduen aurkikuntzak, non ohe-atorra eskuan hartu eta lasterka irten nintzen zure gelatik. (Ilargi-harria. Idem)
- ❖ Zuk! [...] Zuk, munduko pertsona guztien artean nork eta zuk! (Ilargi-harria. Idem)
- ❖ Hau bezalako kasu berezietan. (Ilargi-harria. Idem)
- ❖ Ni gure kolonietako batean jaio nintzen, eta hazi ere bai, denboraldi batean. (Ilargi-harria. Idem)
- ❖ Eta hantxe, jainkoaren bekokian dirdirka, diamante horia ikusi nuen. Ingalaterran ninduen liluratu azken aldiz haren argiak, emakume baten bularraldean keinuka! (Ilargi-harria. Idem)
- ❖ Ezkongaialdiak aurrera egin zuen eta ezkontza ziurtzat eta egintzat jo zuten hala bata nola besteak. (Ilargi-harria. Idem)
- ❖ Ba al zen bertara bildutako damen artean eskuarki Londresen bizi zenik? (Ilargi-harria. Idem)
- ❖ Noiz eta baitziren / othuruntza gozoaren / hoberen-hoberenean, / ikharatzen dire betan. (Orotariko Euskal Hiztegia)
- ❖ Espiritu Santua zebillen Eleizari bere argia prestatzen [...] noiz-da bat-batean agertzen dan munduan San Agustiñ-en argia. (Orotariko Euskal Hiztegia)
- ❖ Etorriko da eguna, noiz eta Jaungoikoari ordu bete eskatuko diodan. (Orotariko Euskal Hiztegia)
- ❖ Egunero daukat uneren bat tonto jartzen naizena, eta... (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Txarto: Lapurrak gu ikusi eta joan egin zen; Ondo: Lapurra gu ikusi eta joan egin zen (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)

- ❖ Ondo: Umea nintzeneko gauzak gogo-gogoan dauzkat [...] (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza) [NOIZ...?]
- ❖ Gaizki: Ikasi nueneko eskola // Ito zeneko erreka (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza) [NON...?]
- ❖ Urte beldurgarria izan zen, begiratzen zaion aldetik begiratzen zaiola (Ia denaren historia laburra. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Populazio hori orain dela hamar mila urtetik orain dela berrogeita bost mila urtera bitarte bizi izan zen (Ia denaren historia laburra. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Orain dela 1,2 milioi urtetik orain dela berrehun mila urtera bitarte, gutxi gorabehera (Ia denaren historia laburra. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Besokada bat harri garraiatzeko, urruti (Ia denaren historia laburra. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Nor ziren? Egia esan, ez dugu arrastorik ere (Ia denaren historia laburra. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Begiratzen duzun tokira begiratzen duzula, hutsuneak daude erregistroetan (Ia denaren historia laburra. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Gehinetan, espezieak desagertu aurretik zaindu genituen bezain gaizki zaintzen ditugu desagertu ondoren ere (Ia denaren historia laburra. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Bere bizitza osoa, 1868tik 1937ra, etxean haurrentzat prestatutako aldean pasatu zuen (Ia denaren historia laburra. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Gauza txiki-txiki mundu hartan gertatzen zena gertatzen zela, hura gobernatzen zuten legeak ez ziren gure mundu handiko legeen berdinak. (Ia denaren historia labur bat. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Partikula baten spina ezartzen denean, haren partikula senidea, dagoen tokian dagoela, kontrako noranzkoan eta abiadura berean biratzen hasten da berehala. (Ia denaren historia labur bat. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Indar bortitzak atomoaren diametroaren ehun milaren bateko distantzian soilik eragiten du. (Ia denaren historia labur bat. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Baina, azkenean, ustea erdia ustel gertatzen zen. (Ia denaren historia labur bat. Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre)
- ❖ Angstroma zentimetro baten ehun milioirena da
- ❖ Horrixerik egokien (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Badago astia, badaukat aukera, badute gogo: Bai, ondo daude // Badago astirik, badaukat aukerarik, badute gogorik: Ez, oker daude // Badago asti(rik) asko, badaukat aukera(rik) ugari, badute gogo(rik) aski: Bai, ondo daude // Bada hemen lanik = lan handia : beste munduan ere izango da horretarako denborarik = denbora luzea ; oraindik geratzen da gurean dirurik = nahiko diru ; bazen han jenderik = jende asko: Bai, ongi daude (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Lehen, etxe bitan bizi ginen, baina orain batean bizi gara: Ondo // Han bizi dira nonbait, Bilboko kale batetako etxe batetan (zehaztugabea, askoren arteko bat, baten bat): Ondo // Ordu batean amaitzeko lana da (batetan: EZ) ; ordu bateko entrenaldia egiten dute egunero (batetako: EZ) ; Minutu bateko isilaldia (batetako: EZ) ; ordu laurden bateko atsedena (batetako: EZ) ; Joaldi batean baloia beste ateraino bidali zuen (batetan: EZ) (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)

- ❖ Urte bat egin du Ameriketara = urte bete egin du Ameriketara // Ordubete bai, baina bi ordu, hiru ordu, lau ordu (ez bi ordubete, hiru ordubete, e.a.) // urtebete (baina ez bi urtebete, hiru urtebete..., baizik bi urte, hiru urte... // (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Pasa den urtean, pasa den asteburuan...: EZ // Joan den urtean, joan den asteburuan // Datorren astean datorrena da eta hurrengo astea datorrenaren ondorengoa (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Lanean hasi bezain pronto: EZ // Lanean hasiz/hasteaz batera, lanean hasten deneko, lanean hasi baikoz: BAI (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Behar den moduan, behar den modura, behar den moduko...: Bai // Behar moduan, behar modura, behar moduko...: EZ // Behar den bezala eta behar bezala: Ongi
- ❖ Etxe onetan jan eta guzti egiten da: EZ // Etxe honetan jan eta guztia / jan eta dena egiten da ; mozkortu eta dena egin ginen: BAI // Janari eta guzti, kotxe eta guztiz (zerekin): BAI (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Ez dakit ondo amaituko ote den eta antzekoak: Gaizki (OTE soberan dago) (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Nahikoa izango ote da honekin? Ez ote duzu mutil hori ezagutzen? Ahaztu egin ote zaio gaurko bilera? Ez ote zara konturatu txarto egiten ari zarela? Nor ote da Keparekin dagoen gizon hori? Zalantzan nago lortuko ote dugun. Beldur naiz galdu ez ote garen. Ez dakit txarragoa ez ote den. Ba ote dakizu norena den? Ba ote dago beste aukerarik? (Illari Zubiri – Entzi Zubiri)
- ❖ Nahiko ogia janda: EZ // Nahiko ogi janda ; BAI // Nahikoa diru, aski indar, aski lan, badaukagu nahiko lan: BAI // (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Ez daukagu zertan arduratu beharrik, ez dago zertan esan beharrik: EZ // Ez daukagu zertan arduratu (zertan arduraturik) = ez daukazu arduratu beharrik: BAI (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Indioarena egin: EZ // Indioenak egin, paizaloenak egin, e.a.: BAI // Edo indiokerietan, pailazokerietan ari, ibili, jardun...: BAI (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Gaur, atzo, bihar, aurten, iaz... eta ez horien ordeaz gaurkoan, atzokoan, biharkoan, aurtengoan, iazkoan... // Atzoko partidaren ederki jokatu zuten, baina gaurkoan nekea igarri zaie: BAI (kasu honetan, ondo dago, “partida” hitzaren errepika aurretzen du eta). (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Esan behar da ere bihar hasten dela...: Gaizki // ... ere esan behar da bihar hasten dela: Gaizkiago // Baita ere esan behar da bihar hasten dela...; esan behar da, baita ere, bihar hasten dela... ; baita esan behar da bihar hasten dela... ; esan behar da, baita, bihar hasten dela...: Ondo (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Hori ere bai, amari ere bai, azukrea ere bai: Ongi // Kaferik nahi al du? Bai. Eta azukrerik? Baita (ere): Ondo // Ez dut kaferik nahi. Eta urik? Ezta (ere): Ondo. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Koska nagusia, arazo nagusia, e.a. : BAI // Koskarik nagusia, arazorik nagusia, e.a. : EZ (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Leloa zelakoan, horrek jakin daki ; Hartu eta eroan daroa, gainera, lotsabakoak! ; Aulkian geratzekoa zena, egun batetik bestera, ibili dabil. Denbora joan doa, erremedio gabe (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)

- ❖ Jakin badakigu, baina ezin dugu esan ; Ibili banabil, baina ez ondoegi oraindik ; Dirua ere, eduki, badaukat, baina zorrak gehiago ; Entzun, entzun nuen, baina ez nuen sinetsi ; Piztu, ez gara piztuko, baina izango gara zerbait (hau da, beste aditz batekiko kontraposizioa adierazten dau) (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Berandu = ordu jakin bati buruzko atzerapena. Oso txarto: orduerdi beranduago etorri zen bigarren gola (Ondo: orduerdi geroago etorri zen bigarren gola) ; Urtebete beranduago, bigarren mundu-gerra hasi zen (Ondo: Urtebete geroago, bigarren mundu-gerra hasi zen) (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Nahiz eta ezer ez dakidan = nahiz ezer ez dakidan ; zeren eta inork ez baitzuen aurreikusi = zeren inork ez baitzuen aurreikusi (“eta” gehitzeko beste mania sistematiko bat zabaltzen ari da: edota, baizik eta, nahiz eta, zeren eta, non eta, noiz eta... (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Animaliak, ondo janda dagoenak, ez zaitu erasoko // Animaliei, ondo janda daudenei, lasai hurbil zakizkieke // itsasoarekin, noiz haserratuko den abisatzen ez duenarekin, hobe duzu gehiegi ez maitemintzea (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Etxe honetan, orain bi lagun bakarrik bizi garen honetan, hamabi seme-alaba jaio eta hazi ziren // Etxe honetan, non orain bi lagun bakarrik bizi garen, hamabi seme-alaba jaio eta hazi ziren. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Eta orain enpresak, ia neure bizitza osoa dedikatu diodanak, erretiro miserable hau proposatzen dit (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Presidenteak, zeinaren planak ez bide ziren kameraren gogoko, berriz ekin zion... (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Halakoxea zen gure aita, zeinaz (zeinagatik) denak ondo mintzo diren, gure ama izan ezik. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Pertsona mingotsa eta izua, zeinarekin nekez jo daitekeen “egun on”etik haratago (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Lehenengo emaztea, zeinarekin bi ume izan zituen, era guztiz ilunean hil zen. Bigarrena ere, zeinaren argakia aurrean daukazuen, antzera hil zen. Hirugarrenak, berriz, zeinarentzat aurrekoen esperientzia ez bide zen hutsa izan, berak hil zuen senarra, honek ezer planifikatzeko astirik ukan aurretik. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ London guztian lagun bakarra ezagutzen nuen, zeinaren (noren) bidez beste batzuen ezagutza lortu nuen. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Bazihoan Txanogorritxo, eta otsoa agertu zitzaion, zeinak galdetu zion... (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Eta otsoa, zeinaren (noren) Txanogorritxok ez duen asmo txarrik susmatu, lasterka abiatzen da amamaren etxerantz... (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Nor: erlatibo personala, Zein: erlatibo ez-pertsonala, eta Zer: neutroa (lo que, con lo que , por lo que, para lo que...) (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Mugagabezko deklinabidea ere bada, noski, tradizioan, baina ni neu, arrazoiren bat dagoen guztian, bereizketaren alde makurtzen naiz. Beraz, singularrean: zeina, zeinak, zeinaren, zeinari, zeinarentzat, zeinarengatik, zeinarengana... Pluralean: zeinak, zeinek, zeinen, zeinei, zeinentzat, zeinengatik, zeinengana... (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)

- ❖ Eta ondoren, presidentea, argazkian agurka ageri dena, bere yatera itzuli zen. // Eta ondoren, presidentea, zeina argazkian agurka ageri den, bere yatera itzuli zen. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Eta ondoren, presidentea, argazkian aurpegia bakarrik ikusten zaiona, bere yatera itzuli zen // Eta ondoren, presidentea, zeinaren aurpegia bakarrik ikusten den argazkian, bere yatera itzuli zen. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Hor daukazue uharte beldurgarria, non, edertasun mugagabearen babesean, lurreko sugerik pozoitsuenak bizi diren (bizi baitira). (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Haran honetantxe, nongoak diren (baitira) aipatu tribuak, filmatu izan dira Oeste filmik fantastikoenak. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Horra hor kontzentrazio-zelai baten ikuspegia, nondik gutxien batzuek bakarrik izan zuten (baitzuten) bizirik irteteko zortea. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Dena ematen zaion haurrak gehiago eskatzen du // Gaur omenaldia egiten diogun gizon honek... (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Horixe da nik lan egiten dudan enpresa // Bizi guztia lanean eman dudan enpresatik esku hutsik bidali naute // Atzo afaldu genuen jatetxeari su eman omen diote // Txoriak gogotsu kantatzen duen sasoi ilunabarra da. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Huraxe da goazen herria // Huraxe da goazen gailurra. // Hauxe da orain goazen mendia (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Hauxe da ordu eta erdian etorri garen mendia, eta beste hauxe, laster iritsiko garena. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Izenik ere ez genekien hainbat herri pasatu genuen. // Izenik ere ez nekien batekin maitemindu nintzen. // Egunero izaten dut tonto jartzen naizen uneren bat. // Zabiltzan lagunekin ibilita, ez zara asko hobetuko. // Zabiltzanekin ibilita, ez zara asko hobetuko. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Hemen duzue bere begiekin maitemindu nintzen laguna // Hemen duzue orain beragaz bizi naizen laguna. // Hemen duzue sekula beragatik txarrik esango ez nukeen laguna. // Hemen duzue beragandik edozer itxaron dezakegun laguna. // Hemen duzue berataz edozertarako fida zaitezkeen laguna. // Hemen duzue beretzat lan egiten dudan enpresa // Hemen duzue bertan buruko mina besterik aurkitu ez dudan lantokia. // Horra hor bertara sekula joango ez nintzatekeen inguru bakarra (del que, con el cual, de quien, del que, del cual, para la que/cual, de la cual/que...) (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Ez ezazu bere esanahirik ezagutzen ez duzun kontzepturik erabil (cuyo sentido) // Euren urtekoa lauhun eurotik gorakoa ez den pentsionistak deklaraziotik libre geldituko lirateke (cuya anualidad...) // Euren kontaduria auditoria baten mende jarria izan ez den enpresek aurkeztu beharko dute... (cuya contabilidad) // Euren aurreramena petrolioan datzan herriak honako dileman aurkitzen dira (cuya capacidad de desarrollo) // Bere koloreak Gauguin oroitarazten didan fruta bakarrik jaten dut (cuyo color) (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Badira galdetzen duzuna baino gehiago haietaz jakiterik inoiz lortzen ez duzun pertsonak. // Batzuetan, hartaz zakurkeriak entzun dituzun jendea gero ez da dioten bezain izugarria. // Bere existentzia baizik ez dakidan auzia da. // Horra hor hartaz zure informazioa behar dudan gizona (Ése es el hombre de quien necesito tener tu información) (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)

- ❖ Hainbeste urtetan beragaz bizi izan zaren lagun bat ez daiteke zure bizitzagaz zerikusi gabea izan. // Ezkontza ona dela emanik, beragaz ezkonduko nintzatekeen azkena zara. // Hau ote da beragaz topo egitea amesten nuen aukera? // Eurekin dirua eta ospea lor dezakedan negozioak bakarrik planteatzen ditut. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Harentzat –hartarako– lan egiten dudan enpresa porrot zorion dago. // Beretzat gauzarik behinena lana den gizonak nekez dezake... // Hartarako talentu handirik behar ez duzun ofizioa da. // Beretzat zenbaki bat besterik ez zaren nagusia maitatzea ez da erraza. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Hor duzue sistema honek harantz (bertarantz) garamatzen mundua. // Horra hor gure satelitea harantz (bertarantz) doan planeta. // Hor duzue bide guztiek bertara omen daramaten Erroma. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Horrelaxe sortu zen bertan noizbait bizi izana denok nahiko genukeen Grezia. // Beragan justizia eta zigorra ikusten duzun Jainkoa izan daiteke beldurgarria, baina ez maitea. // Orain arte, hartan bat gatozen puntu bakarra aurkitu dugu. // Haietan nire ilusioa zorigaitz bilakatu zen oporrak igaro genituen. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Zu ez al zara bere argazkia telebistan zabaldu zuten atrakatzaile hura? // Zu ez al zara atrakatzaile hura, zeinaren argazkia telebistan zabaldu zuten? // Zu ez al zara atrakatzaile hura, bere argazkia telebistan zabaldu zutena? // Zu ez al zara atrakatzaile hura, bere argazkia zabaldu zutena... telebistan? // Zu ez al zara hura, bere argazkia telebistan zabaldu zuten... atrakatzailea? // Zu ez al zara bere argazkia telebistan zabaldu zuten atrakatzailea? // Zu ez al zara argazkia telebistan zabaldu zuten atrakatzaile hura? (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Sortuko ahal dira eurengatik arima saltzea ere onartuko nukeen maitasun berriak edo bizio zaharrak. // Sortuko ahal dira maitasun berriak edo bizio zaharrak, zeintzuengatik arima saltzea ere onartuko nukeen. // Sortuko ahal dira maitasun berriak edo bizio zaharrak, zeintzuengatik onartuko nukeen arima saltzea ere. // Sortuko ahal dira berriak edo zaharrak, eurengatik arima saltzea onartuko nukeen maitasunak edo bizioak. // Sortuko ahal dira maitasun berriak edo bizio zaharrak, eurengatik arima saltzea onartuko nukeenak. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Egunero izaten dut uneren bat, tonto jartzen naizena, eta orduan telebista pizten dut. // Egunero izaten ditut uneak, tonto jartzen naizenak, eta orduan telebista pizten dut. // Egunero izaten ditut uneak, tonto jartzekoak, eta orduan telebista pizten dut (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Badira pertsonak, eurekin hitzik ere egin ezin duzunak, eta beste batzuk, eurekin edozer komenta dezakezunak. // Badira pertsonak hitzik ere egin ezin diezunak, eta beste batzuk edozer komentatzeko modukoak. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ Zuek al zarete ni sarritan lapurrak zirela ziur egon naizenak? // Mirariak ziren, ez hainbeste, aste haietarako antolatua genuen solasengatik, baizik... // Baditut premonizioak, gertatuko direla badakidanak, baina burutik kendu ezin ditudanak // Baditut egunak, beltzak izango direla aurreikusi dudanak, baina gero hain gaizki bukatzen ez direnak. (Euskara Batuaren bigarren jaiotza, X. Amuriza)
- ❖ [...] hara non agertzen den kolpez metal herdoilduzko karkasa bat (Basamortua, Le Clézio / Itzulpena: Luis Berrizbeitia)

- ❖ [...] eta hegaztiaren keinua egiten du eskuarekin, hatz zolia batuta eta azken hiru hatzak bereizita nola txori baten lumak (Basamortua, Le Clézio / Itzulpena: Luis Berrizbeitia)
- ❖ [...] bertso ederrak [...] hainbatenaz zirela ederrago, zenbatenaz ziren esanahiaz peituago. (Denbora galduaren bila, M. Proust - Joxe Austin Arrietak euskaratua)
- ❖ [...] berak ez bestek zekien bezala (Denbora galduaren bila, M. Proust - Joxe Austin Arrietak euskaratua) (como sólo y nadie más sabía hacerlo)